

72. hilobiko botila barnean zegoen mezua

Ezkabako gotorlekuko hilerrian dauden 131 preso errepublikanoen gorpuetako sei atera ditu, jada, Aranzadi elkarteak. Haietako baten ondoan, agiri bat barruan zuen botila agertu da.

ASIER AZPILIKUETA
Iruñea

San Kristobalgot kartzela ospitalea. Iruñea. Andres Gangoiti Cuesta hemen hil zen, biriketako tuberkulosiak jota. 23 urte zituen, ogibidez marinela zen, Gorlizkoa zen (Bizkaia), Bilboko Gregorio Revuelta 30 kalean bizi zen, Lorenzo eta Luciaren semea zen. Preso honi 30 urteko zigorra ezarri zioten Donostian eginko Gerra Kontseilu batean, matxinadarekin bat egiteagatik. Iruñea, 1943ko abendua-ren 26a».


Horixe dio botila barneko mezuak. Horixe dio Ezkaba mendiko (Nafarroa) gotorlekuko hilerriko hilobi batean aurkitu zuten botila barnean zegoen agiri ofizialak. «Peninsula osoan, 500 gorpu ateratze baino gehiago egin izan ditugu, eta sekula ez dugu halakorik aurkitu», erran du Lourdes Errazti Aranzadi elkarteoko arkeologoak. «Agiri ofiziala da, gainera. Balio historiko handikoa da».

Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkartek eskatuta, Ezkabako hilerriko indusketa lanak egiten ari dira Aranzadi eta Txinparta elkarteak. 131 preso errepublikanoen gorpuak daude hilerri horretan, Ezkabako kartzelan 1942 eta 1945 urteen artean hilak, tuberkulosiak jota gehienak.

BOTILAK BELAUN ARTEAN. Errazti Ezkabako gorpuzkinak ateratzen eta aztertzen ibili da. «Gorpu guztiak bazuten, belauna artean, botila bat. Sagardo botilak, koñak botilak, xerez botilak... Denetarik. Botila guztien kortxoak deseginak zirenez, hezetasuna sartu zen botiletara, eta horrek desegin zuen barnean izan zezaketen. Botila guztiak hutsik zeuden».

Baina, halako batean, xarabe botila bat aurkitu zuten, Andres Gangoitiren uestezko hilerrian. «Kizikagarria izan zen. Botila hark tapoia jarrita zuen. Eta barnean paper bat zuen. Agiri ofizial bat. Han nor zegoen lurperatuta adierazten zuena. Agiri horrek baieztatu zigun benetan 72. hobia Andres Gangoitirena zela».

Hilerria garbitu zuen Txinparta elkarteak kide Koldo Plak azaldu duenez, «oso lan zaila» izan da 131 horien familiekin harremanetan jartzea, eta oraindik horretan ari



Andres Gangoitiren belaun artean zegoen botilak tapoia zuenez, hezetasunak ez zuen barneko papera desegin. ARANZADI



Ezkabako hilobiak oso sakonak dira, 1,5 metro baino gehiagokoak, bertan bi hilkutxa sartzeko asmoa baitzuten. ARANZADI

700 hildako baino gehiago, 9 urtean

Iruñea ondoko Ezkaba mendiko kartzelan, 700 preso errepublikano baino gehiago hil ziren, Txinparta elkarteak Koldo Plak esplikatu duenez. «750 baino gehiago ere izan daitezke. Bada, horietako berrehun baino gehiagoren izenak ez dakizkigu, ez zituztelako inon idatzi. Horien gorpu batzuk berreskuratu zituzten Franco hil ondoren. Baina bertze batzuk erabat desagertuta daude».

Kartzelan erregistratu zituzten preso hilen artean, batetik, 1938ko ihesean hil zituzten 207 presoak daude. «Normalean, hil zituzten tokietan lurperatu zituzten: Ezkabarten, Odietan, Esteribarren, Eguesibarren. Hobi batzuk ezagutzen ditugu, baina ez dakigu non dagoen nor». Horietaz aparte, 1936tik 1942ko maiatzar bitartean hil zirenak Antsoingo zendea-

ko herrietako hilerri txikietan lurperatu zituzten. «Kasu horretan, bai, badakigu nor dagoen non. Lehen urteetakoak fusilatutako dira, hilerrietan berean fusilatutakoak dira, azken urteetakoak, gaixotakoak. Azken urteetakoak, gaixotakoak, hilerriak betetzen ari zirelako. Eta gotorleku ondoan hilerri bat egin zuten».

400 presorendako tokia zegoen kartzela ondoko hilerrian, bi mailatako zuloak egin nahi baitzituzten. Horregatik, aurkitutako zuloak oso sakonak dira.

«Lehen gorpuak 1942ko maiatzean lurperatu zuten, eta azkena, 1945eko uztailan. Orduan itxi baitzuten Ezkabako kartzela. Elizak eta Armadak bazekiten hilerri hori existitzen zela, eta guk aurkitu genuen, beraiek baieztatu zuten eta 131 gorpu zeudela zehaztu».

dira. «Oraingoz, 28 familiak egin digute eskaera gorpuak ateratzeko. Baliteke aurrerago eskaera gehiago izatea. Batzuek bazekiten Iruñean zegoela gorpuak. Bertze batzuek guri esker jakin dute».

Eskaera horiei kasu eginez, oraingoz, sei presoren gorpuak atera eta aztertu dituzte. Los Billaresko (Jaen, Espainia) Angel Mena Gomezen eta Andres Gangoitiren gorpuzkinak haien familiei eman dizkiete, dagoeneko. «70 urte geroago, bi familiek beren zenduak lurperatu ahal izan dituzte, merezi zuten duintasunez», erran du Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak kide Asun Larretak.

36. HILOBIA. Jose Maria Jimeno Juri historialariak bazuen hilerriaren krokis bat, funtsezkoa izan dena, Lourdes Errazti arkeologoa-

■ zenbakia

131

■ **Ezkabako hilerrian.** 131 gorpu daude, 1942 eta 1945. urteen artean hil ziren preso errepublikanoenak. Haien familiekin harremanetan jarri, eta, oraingoz, 28 gorpu ateratzeko eskaerak jaso dituzte. Dagoeneko sei atera dituzte, eta bi eman.

«Orain arte, sekula ez dugu hobi batean aurkitu bertan nor dagoen lurperatuta zehazten duen agiririk»

LOURDES ERRAZTI
ARANZADI ELKARTEKO ARKEOLOGOA

ren hitzetan. «Krokisean ageri da nola dauden gorpuak lurperatuta. Eta gorpu guztiei zenbaki bat egokitu zieten, badakigu nor dagoen zein zulotan. Kontua zen zulo horien kokapena zehaztea».

Antza, krokisa apaiz batek egin zuen. Eta krokisean bi ehorzketa leku bereizi zituen apaizak, «katolikoa» eta «zibila». Azken hori ehorzketa katolikoari uko egiten ziotenendako zen. Erraztik erran duenez, bereizketa hori gehiago izan zen «espirituala», fisikoa baino, gorpu guztiak hilerri berean baitzeuden.

Hilkutxa guztiak berdinak dira, pinuzkoak eta 1,70 metro luzekoak. Hilkutxetan, iltzeek gain, apenas aurkitu duten objektu pertsonalik. «Alkandoretako botoiak. Gerrietako belarriak. Eratzun xume bat. Eta Milagrosaren domina bat. Azken hori 36. hobian zegoen, gorpuaren kaskezur azpian. 36. hobian Narciso Cadenas leondarra lurperatu zuten, ehorzketa katolikoari uko egin zion lehenbiziko preso, hain zuzen ere. Pentsatzekoa da beste norbaitek jarri izango ziola domina hori hor».

Koldo Plak esplikatu duenez, Narciso Cadenasen familiakoek ez zekiten hura Iruñean hil zenik. Izan ere, gotorlekuko mojek eskutitza bidali zioten haren amari, ke-xuka, Cadenasek ehorzketa katolikoari uko egin ziolako. Eta amak, amorraren amorruez, sutara bidali zuen eskutitza, nondik bidaltzen zuten begiratu gabe».

Erakundeen laguntza falta salatu eta Aranzadien «zehaztasun zientifikoa» goraipatu du Larretak. «Zehaztasun zientifiko horrek lan egiteko era adierazteaz gain, historia eta erakunde ofizialek baztertu eta ahaztutako pertsona hauen heriotzari duintasuna itzultzeko tresna baita».

Urritik aurrera, indusketa lanekin segituko dute, eskatutako gorpuak ateratzeko. Bertze gorpuak ez baditu inork eskatzen, han geldituko dira.